

# Joxe Azurmendi

## **EZ DAGOEN KRISIA ETA BADAGOENA**

Zer derizkiodan literatur krisiaz? Bueno, lehenengo, nik ez diat ikusten krisian gabiltzanik eta hura esplikatzeke ematen diren kausak, ba, ez nautek oso konbentzitzen, bistan zegok. Dena dela, krisirik egon ez egon, krisiaz etengabe hitzegite bat bazegok, aspaldi, eta horrek zerbait esan nahi dik.

Halere, askotan literatur krisia aipatzen duk eta krisi kontzeptu ekonomiko bat edo, ez zekiat, erabiltzen duk horretarako (ez diat uste "literatur krisiak" beste inon sentido hau hartzen duenik). Estatistikoa, nahiago baduk. "Gehiago produzitzen da, gutxiago produzitzen da". Beraz, produkzio krisia: ez bait dik derrigor literatur krisirik adierazten.

Gainera, ez zekiat produkzioa neurtzen ere, Torrealday beste inor dabilenik. Torrealdayk bai, urtero publikatzen dik bere estatistika, urteko euskal liburuen zerrenda osoare-

kin. Eta horra hor zifrak: Torrealdayren estatistiketan literatur produkzioaren krisirik ez duk inon ageri, orokarki behintzat. Egotekotan, bertsolaritza eta egongo liratekek krisian. Sekula aipatzen ez diren adaska batzuk. Eta beren egiazko aktibitate barrutian krisirik ez dutenak. Benetan gaizki ibili, teatroa zebilek, aspaldi.

Gertatu dena, denok ikusten diagu: lehen euskal liburu bat notizia zela, orain ez. Eta ez nauk hasiko hori zergatik den horrela, etab., edozein literatur krisi egiazko zein alegiazkorekin oso zerikusi gutxi dik eta. Lehen hilketak bat notizia huen, orain sei hil beharra zegok notizia izateko. Dena aldatu duk. Prentsak orain euskal literaturari edo literatur produkzioari gutxiago begiratzen baziok, ez zegok segituan literaturaren krisiaz hitzegiten zergatik hasi. Has gaitezen kontsiderazioak alderantziz egiten, seguruenik arrazoizkoagoa izango duk: euskal prentsaren krisia literatura-rikiko erlazioetan. . . Buruz behera politikara joan dituk denak.

Beste hau ere gertatu duk: proportzioak arras aldatu direla euskarazko produkzioaren barruan. Lehen ez zegoan literatura besterik. Zegoentxo dena literatura huen eta kito. Joaten haiz orain Bilintxera eta gramatika eta hiztegi eta metodo pilak. Konforme. Baino horrek ez dik esan nahi bestelakoa lehen baino gutxiago produzitzen denik. Literatura. Inpresio faltso batzuk sortzen dituk eta besterik ez.

Beste hau ere: askoz exigenteago bihurtu garelak. Orain, nobela bat agertzen duk eta babilio literario haundirik ez duela iruditzen bazuigu, kontatu ere ez diagu egiten. Kontatzeko orduan gutxienez nobela bat nobela bat duk, ordea, hoberena bezalaxe eskasena. Kalitate beste asunto bat duk. Edo esan dezagun bestela argi, kalitatea dagoela krisian. Baina hortara inor ez duk atrebitzen.

Kontuak atera eta: 67an liburu literarioak 19 argitara hituen, 77an 32; 68an 21 liburu literario, 78an 57, beti kriterio berdina aplikatuz. 68an 5 poesi liburu, 78an 13. 68an 2 nobela, 78an 14. 68an ipuin eta narratibako 3 liburu, 78an 11. Non dago krisia? Eta 79an berriro gora egin diagu.

